

GIL 112 Txindokiko tontorrak eta kareharriak



Txindokiko ertza, Zaldibiatik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 01' 20,90" N

Long.: 2° 05' 17,25" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 532.891,41 m

Y: 4.763.713,68 m



Nola iritsi

N-1 errepidean, hartu Ordiziako irteera, eta, handik, GI-2133 errepidea, Zaldibia aldera. Gurutzatu herria, eta jarraitu Larraitz auzoraino.



Txindokiko gailurra, arrezife-kareharriz osatua.

GILaren deskribapen laburra

Txindoki Gipuzkoako mendi enblematikoenetakoa bat da. 1.346 metro garai eta ertz zorrotz batez burutua, Aralar mendizerrako tontorren artetik gailentzen da.

Mendilerroaren erdigunean material zaharragoak, jurasikoak, eta izaera karbonatutukoak dauden arren eta Behe Kretazeoko lutitak eta hareak ere dauden arren (Weald formazioa), Txindoki eratu dutenak Aptiar-Albiarreko kareharri urgondarrak dira, sakonera txikiko plataforma subtropikalaren ertzekoak, eta, mendebalderantz, ezponda-fazieserako trantsizioa dute (Gaztelumendi). Kareharri mikritikoak dira, eta fosil ugari dituzte, gehienbat bibalbioak —familia askotako errudistak, batez ere— eta koralak. Ezponda-fazieserako trantsizioa ikusgai geratzen da paisaian, Txindokiko ertz nagusia osatzen duen kare-paketea desagertu delako.

Arrezife-kareharriak eta inguruan dituzten tuparriak desberdin higitzen direnez, mendia-
ren gailurrean ertz zorrotz bat eratu da.

Txindokiko multzoak, gainera, interes estrukturala du, zamalkadura bat duelako hegoalderantz, ondo baino hobeto ikusten dena. Zamalkadura horrek serie jurasiko osoa ezartzen du, okerdura txikiarekin, Txindokik, Auza Gazteluk, Artubik eta Balerdik osatzen duten fronteko kareharri urgondar ia bertikalen gainean.



Txindokiko arrezife-kareharriak, hegoaldetik.

Behatzeko punturik onena

GI-2133 errepidea, Zaldibia eta Larraitz artean, edo ertza bera.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 9, GIL 83, GIL 87, GIL 106, GIL 120.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 9, GIL 16, GIL 18, GIL 19, GIL 111.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/89-III.pdf>
- López – Horgue, M.: *Geología de Aralar*. <http://www.aralar-natura.org/lanak/geologia.pdf>
- Millán, M.I. *El contexto geológico de la cueva de Mendukilo: la Sierra de Aralar*. <http://sedeck.org/revista/7-geologia.pdf>
- Duvernypis, CH., Floquet, M. eta Humbel, B. (1972): *La Sierra d'Araral. Stratigraphie. Structure. Cartographie au 1:25.000*. Doktore-tesia. Dijoneko unibertsitatea.
- García – Mondejar, J., Owen, H.G., Raissosadat, N., Millán, M.I. eta Fernández Mendiola, P.A. (2008): *The Lower Aptian of Aralar (north Spain): stratigraphy, sedimentology, ammonite biozonation and OAE1*. Kretazeoari buruzko ikerketa.